



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

Règlement 2018 **« Volet Edition »**

adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2018

...

2018ko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartu

« Argitalpena atala » **2018ko araudia**



Règlement 2018 « volet Edition »
adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2018



3 domaines d'intervention :

- ❶. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque.
- ❷. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque.
- ❸. Soutien à la mise en place d'animations pédagogiques en langue basque.



2018ko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartu
« Argitalpena atala » 2018ko araudia



3 sustapen-lerro:

- ❶. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu.
- ❷. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu.
- ❸. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu.

Cadre

L'Office Public de la Langue Basque a été créé en 2004 pour une durée de six ans dans la continuité de la Maîtrise d'Ouvrage Publique, avec pour mission de :

- Concevoir, définir et mettre en œuvre une politique linguistique publique et concertée en faveur de la langue basque,
- Mobiliser les moyens financiers nécessaires pour mener à bien les actions retenues dans le cadre de son propre programme d'activités, ou confiées à des maîtres d'œuvres qu'il conventionne à cette fin.

En 2010, après évaluation de l'action menée au cours de la première période 2004-2010, les membres de l'Office Public de la Langue Basque ont décidé à l'unanimité de reconduire le groupement pour la période 2011-2016. De même en 2016, les membres de l'OPLB ont décidé à l'unanimité de reconduire le GIP (Groupement d'intérêt public) pour six ans, en prévoyant l'intégration de la Communauté d'Agglomération Pays Basque créée le 1^{er} janvier 2017.

Le Décret 193/2013 relatif à l'organisation du Ministère de l'Éducation, de la Politique Linguistique et de la Culture du Gouvernement Basque, confie au Vice-Ministère de la Politique Linguistique, le soin de mettre en œuvre et de suivre la politique du Gouvernement Basque en matière de normalisation de l'utilisation de la langue basque et de fixer les critères que se devront d'appliquer les administrations publiques de la Communauté Autonome d'Euskadi.

En référence d'une part au Plan de revitalisation de la langue basque ratifié par le Parlement Basque le 10 Décembre 1999, puis au Plan d'Action de soutien à la langue basque ratifié le 11 septembre 2013 par le Parlement Basque, et en référence d'autre part au Projet de Politique Linguistique adopté par l'OPLB le 26 décembre 2006 d'autre part, le Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque ont établi en 2007 un cadre de collaboration permanente en matière de politique linguistique. Après évaluations positives, les deux partenaires ont décidé de reconduire ce partenariat, successivement pour les périodes 2011-2016 puis 2017-2022.

Esparrua

Euskararen Erakunde Publikoa 2004.urtean eratu zen sei urterentzat Obragintza Publikoaren segida hartuz. Erakundearen eginkizunak dira:

- Batetik, euskararen aldeko hizkuntza politika publiko eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea
- Bestetik, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo hitzarmenez lotutako eragileek bideratutako ekintzak gauzatzeko behar diren finantza baliabideak bermatzea

2010. urtean, 2004-2010 lehen epealdian eramandako lanaren ebaluaketa bat egin ondoan, Euskararen Erakunde Publikoa osatzen duten kideek aho batez erabaki dute 2010-2016 denboraldiko erakundearen berritzea. Gisa berean, 2017ko urtarrilaren 1ean sortutako Euskal Hirigune Elkargoaren integrazioa aurreikusiz, 2016an EEPko kideek aho batez erabaki dute IPEa (Interes publikoko elkargoa) bertze 6 urterentzat luzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa finkatzen duen 193/2013 Dekretuan jasotakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera normalizatzeko bideratu behar duen politika artikulatzea eta jarraitzea, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erabili beharreko irizpideak ematea ere.

Eusko Legebiltzarrak 1999. urteko abenduaren 10ean berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren lekukoa hartu duen 2013ko irailaren 11an Eusko Legebiltzarrak onetsitako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana kontuan hartuz, eta bestetik Euskararen Erakunde Publikoak 2006. urteko abenduaren 26an onartutako Hizkuntza Politika Proiektuak eskaintzen dituzten erreferentzia-markoak errespetatuz, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskararen hizkuntza politika tratatzen duten gaietan, mugaz gaindiko lankidetzara iraukor baten esparruak finkatu dituzte. Lankidetzaren ebaluaketa baikorra eginik, bi izenpetzaileek partaidetzaren berriz bideratzea erabaki dute, hurrenez hurren 2010-2016 eta 2017-2022 epealdietarako.

Cette nouvelle convention-cadre vient réaffirmer la volonté du Gouvernement Basque et de l'Office Public de la Langue Basque de collaborer en matière de politique linguistique, dans le respect de l'autonomie de décision et des règles de fonctionnement de chacun des organismes concernés. Elle fixe le cadre du partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque et le Gouvernement Basque, et prévoit qu'une Annexe annuelle précisera chaque année les actions menées en partenariat, ainsi que les modalités d'accompagnement financier des opérateurs du Pays Basque de France, parmi lesquels **l'Appel à projets action linguistique**, dont les modalités sont fixées dans le règlement adopté par l'Assemblée Générale du 24 avril 2018 de l'Office Public de la Langue Basque. Pour cela, le Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque ont décidé de mettre en place un fonds spécifique de **380.000 €**.

Cet Appel à projets action linguistique a pour objet d'organiser l'affectation des aides aux opérateurs privés du Pays Basque de France œuvrant au développement de l'utilisation de la langue basque. Les projets et les activités soutenus dans le cadre de ce dispositif devront se réaliser au cours de l'année **2018** (il pourra s'agir d'une tranche d'un projet pluriannuel).

Faisant suite à l'état des lieux et aux préconisations relatives à l'édition en langues de France en Aquitaine établis en 2008 par l'Agence Régionale Pour l'Écrit et le Livre (ARPEL) en Aquitaine, le présent **règlement du Volet Edition, adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2018**, a été établi en 2009 et réactualisé après évaluation réalisée en 2013 en organisant des temps de consultation des opérateurs ayant déposé des demandes d'aides financières d'une part, et des temps de travail avec le département livre d'Écrit Cinéma Livre Audiovisuel (ECLA, anciennement ARPEL) d'autre part.

•••

Hitzarmen-marko berri honek, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean, euskararen hizkuntza politika tratatzen dituzten gaitan lankidetzaz garatzearen aldeko borondatea berresten du, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz. Hitzarmen-markoak bi erakundeen arteko elkarlanerako esparruak finkatzen ditu, eta honi loturiko urteko eranskinak aldiz, urtero eramandako jarduerak zehaztuko ditu bai eta lankidetzak plantan ezarritako Ipar Euskal Herriko eragilean diruz sustatzeko moduak argituko, horien artean, **hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia**, zeinen modalitateak, Euskararen Erakunde Publikoaren 2018ko apirilaren 24ko Biltzar nagusiak onartu araudiak zehazten dituen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak **380.000 €**ko fondo berezi baten jartzea erabaki dute.

Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren xedea, euskararen erabilpenaren garapenaren alde lanean diharduten Ipar Euskal Herriko eragileei diru-laguntzak emateko modua arautzea da. Deialdi honen bidez lagundutako proiektuek eta jarduerak **2018**an burutu behar dute (nolanahi ere, urte anitzeko proiektu baten zati izan daitezke).

Akitania Eskualdeko Idatziaren eta Liburuaren Agentziak (ARPEL) 2008. urtean tokiko argitalpenari buruz burutu azterketa eta ondotik gomendatutakoak kontuan hartuta, honako **Argitalpena ataleko araudia, 2018ko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartua** dena, 2009. urtean geroztik plantan jarri da, eta geroztik egokitua izan da, ebaluaketa 2013. urtean egin ondoan, batetik diru-laguntza eskaerak helarazi dituzten eragileak kontsultatuz, eta bestetik Écrit Cinéma Livre Audiovisuel (ECLA, aitzinagotik ARPEL) erakundeko liburuaren departamenduarekin lan uneak burutuz.

•••

Article 1 : Objet

Adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique, le présent règlement du **volet Edition** définit les modalités de soutien aux opérateurs en matière d'édition en langue basque visant à mettre à disposition du public une offre éditoriale complète et de qualité pour promouvoir l'usage social de la langue.

Article 2 : Domaines d'intervention

Le **volet édition** est structuré en **3 domaines d'intervention** :

1. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque.
2. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque.
3. Soutien à la mise en place d'animations pédagogiques en langue basque.

1. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque

• Cette aide vise à soutenir les éditeurs dans leur activité d'édition d'ouvrage en langue basque dans un contexte économique du livre en langue basque rendu difficile par la situation sociolinguistique de la langue basque et par un marché restreint ne permettant pas toujours de rentabiliser les ouvrages produits.

2. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque

• Cette aide vise à soutenir les éditeurs dans la réalisation d'opérations de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque unilingue ou plurilingue.

3. Soutien à la mise en place d'animations en langue basque

• Cette aide vise à soutenir la mise en place d'animations en langue basque dont l'objet est de promouvoir la lecture, l'écriture et/ou les métiers du livre en milieu scolaire, périscolaire et extrascolaire.

1. artikulua: Helburua

Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiari uztarturik, **Argitalpena atalaren** araudiaren xedea, euskarazko argitalpenaren alorrean lanean diharduten eragileei zuzendu diru-laguntzen arautzea da, kalitatezko argitalpen eskaintza osatua publikoarentzat eskuragarri jarriz eta euskararen erabilpen soziala areagotuz.

2. artikulua: Sustapen-lerroak

Argitalpena atala, 3 sustapen-lerrotan egituratzen da:

1. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu.
2. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu.
3. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu.

1. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu

• Sustapen-lerro honen xedea euskarazko argitaratze lanetan, argitaratzaileen sustatzea da, ekoiztu liburuen errentagarritasuna beti lortzen zaila egiten denaz ohartuta eta euskararen egoera soziolinguistikoak euskarazko liburugintzaren testuinguru ekonomikoan eragin nekezia jabetuta.

2. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu

• Sustapen-lerro honen xedea argitaratzaileen sustatzea da, euskarazko liburu elebakar edota eleanitzaren merkaturatzea edo hauen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak lagunduz.

3. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu

• Sustapen-lerro honen xedea euskarazko animazio pedagogikoen antolaketaren sustatzea da, irakurketa, idazketa edota liburugintzari lotu ofizioen ezagutza bermatzen lagunduz, eskolaz barneko edo kanpoko jardueren kariatara.

Article 3 : Bénéficiaires

- ❶. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque, **et**
- ❷. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque

- Peuvent bénéficier de ces aides les **entités commerciales** ou les **associations** Loi 1901 :
 - exerçant tout ou partie de leur activité dans le domaine de l'édition, et ayant un savoir-faire et une expertise dans ce domaine,
 - inscrivant le(s) projet(s) présenté(s) dans le cadre d'une politique éditoriale définie (ligne éditoriale, stratégie de diffusion-commercialisation),
 - publiant des ouvrages en langue basque à compte d'éditeur,
 - travaillant dans le respect de la déontologie de la charte des éditeurs,
 - dont le siège social se situe en Pays Basque de France, officiellement déclarées dans le respect de la réglementation en vigueur.
- Ne peuvent pas bénéficier de ces aides :
 - les éditeurs publiant à compte d'auteur,
 - les entités commerciales dont la majorité du capital est détenue par une collectivité publique,
 - les porteurs de projets visant à éditer un ouvrage résultant d'une commande publique.

- ❸. Soutien à la mise en place d'animations en langue basque

- Peuvent bénéficier de ces aides **les prestataires** ayant leur siège social en Pays Basque de France officiellement déclarés dans le respect de la réglementation en vigueur.
- Ne peuvent pas bénéficier de ces aides :
 - les porteurs de projets relatifs à l'organisation de projets d'établissements scolaires,
 - les entités commerciales dont la majorité du capital est détenue par une collectivité publique.

Pour bénéficier d'une aide financière ou de son versement, l'opérateur ne devra faire l'objet d'aucune procédure en cours avec les autorités de la Communauté Autonome d'Euskadi ou avec l'Office Public de la Langue Basque, relative à la production de pièces administratives ou à des remboursements dus sur des projets antérieurs.

3. artikulua : Onuradunak

- ❶. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu, **eta**
- ❷. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu

- Deialdi honetako diru-laguntzak eskuratu ditzakete **merkataritza entitateek** edo 1901. urteko legepeko **elkartek** :
 - non beren jarduna partez edo osoki liburuaren argitaratzea den, horretarako gaitasunak dituztelarik,
 - non aurkeztutako proiektuak(ek) argitalpen politika jakin bati erreferentzia egiten du(t)en (ildo editoriala, hedapen-merkaturatze estrategia),
 - non beren eginbidea argitaratzailearen kontura euskarazko liburuaren argitaratzea den,
 - argitaratzaileen kartaren deontologiaren errespetuan diharduten heinean,
 - non beren egoitza soziala Ipar Euskal Herrian daukaten, indarrean den legediaren errespetuan,
- Deialdi honetako diru-laguntzak ezin ditzakete eskuratu :
 - autorearen kontura argitaratzen duten argitaratzaileak,
 - merkataritza-entitateak, baldin eta beren kapitalean herri-administrazio batek edo gehiagok badute partaidetza gehiena,
 - eskari publiko baten oinarri bideratu proiektuen eramaileak.

- ❸. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu

- Deialdi honetan aurkeztu daitezke beraien egoitza soziala Ipar Euskal Herrian daukaten eta indarrean dauden legedien arabera eraturiko **zerbitzu emaleak**.
- Deialdi honetako diru-laguntzak ezin ditzakete eskuratu :
 - ikastetxeen jardueren antolaketari lotu proiektuen eramaleak,
 - merkataritza-entitateak, baldin eta beren kapitalean herri-administrazio batek edo gehiagok badute partaidetza gehiena.

Diru-laguntzak esleitzeko edo, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da onuradunak Euskararen Erakunde Publikoa edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzak direla-eta, zehatzeko edo zenbatekoren bat itzultzeko hasitako inolako prozesutan ez egotea.

Article 4 : Domaine éligible

1. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque

• **Tout ouvrage en langue basque** (unilingue ou plurilingue) qui n'est pas un ouvrage pédagogique.

• Tout ouvrage répondant à la définition fiscale du livre (Direction Générale des impôts dans son instruction du 30 décembre 1971, 3C-14-71) :

« Un livre est un ensemble imprimé, illustré ou non, publié sous un titre, ayant pour objet la reproduction d'une œuvre de l'esprit d'un ou plusieurs auteurs en vue de l'enseignement, de la diffusion de la pensée et de la culture.

Cet ensemble peut être présenté sous la forme d'éléments imprimés, assemblés ou réunis par tout procédé, sous réserve que ces éléments aient le même objet et que leur réunion soit nécessaire à l'unité de l'œuvre. Ils ne peuvent faire l'objet d'une vente séparée que s'ils sont destinés à former un ensemble ou s'ils en constituent la mise à jour.

Cet ensemble conserve la nature de livre lorsque la surface cumulée des espaces consacrés à la publicité et des blancs intégrés au texte en vue de l'utilisation par le lecteur est au plus égale au tiers de la surface totale de l'ensemble, abstraction faite de la reliure ou de tout autre procédé équivalent ».

Ouvrages répondant à la définition fiscale du livre :

- Ouvrages traitant de lettres, de science ou d'art,
- Dictionnaires et encyclopédies,
- Livres d'enseignement,
- Almanachs renfermant principalement des articles littéraires, scientifiques ou artistiques, et plus généralement lorsque les éléments d'intérêt général ou éducatif sont prédominants,
- Livres d'images, avec ou sans texte,
- Guides culturels et touristiques,
- Répertoires juridiques, bibliographiques et culturels,
- Catalogues d'expositions artistiques ne concernant pas de simples répertoires d'œuvres, c'est-à-dire dans la mesure où une partie rédactionnelle suffisante permet de conférer à l'ensemble le caractère d'une œuvre intellectuelle,
- Méthodes de musique, livrets ou partitions d'œuvres musicales pour piano ou chant, ouvrages d'enseignement musical et solfèges.

Ouvrages ne répondant pas à la définition fiscale du livre :

- Almanachs autres que ceux visés ci-dessus,
- Annuaires,
- Guides contenant des listes d'hôtels ou de restaurants, guides de villes et guides à caractère essentiellement publicitaires,
- Catalogues,
- Catalogues et albums philatéliques,
- Indicateurs de chemins de fer, bateaux, tramways et publications similaires,
- Albums à colorier, alphabets et découpages,
- Albums d'images pour enfants conçus pour être découpés ou en vue de la constitution d'une collection,

4. artikulua : Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu

• **Euskarazko edozein liburu** (elebakarra edo eleanitza), ekoizpen pedagogiko bat ez dena.

• Liburuaren definizio fiskalari erantzuten dion euskarazko edozein liburu (Zergen Zuzendaritza Nagusiak eman 1971ko abenduaren 30eko 3C-14-71 aginduan):

« Liburu bat, inprimatutako multzo bat da, irudiekin edo gabekoa, titulu baten pean argitaratutakoa, non honen gaia autore baten edo batzuen gogoaren obraren transkribatzea den, pentsamenduaren eta kulturaren irakasteko edota hedatzeko helburuarekin.

Multzo hori, inprimatutako elementuen bilketa bezala aurkezten da, edozein moldez loturik edo bildurik, elementu horiek ber gaiarekin zerikusia dutela eta horien bilketa obraren batasunarentzat beharrezkoa denerako baldintzekin. Inprimatutako elementu horiek, ez litezke aparteko salmenta batekoak izan, baldin eta multzo baten osatzeko helburua duten edota hauen gaurkotze bat den kasutan ezik.

Multzo horrek liburu izaera atxikitzen du, publizitatearentzat gorde espazioen eta testuaren zuriuneen azaleraren gehikuntzak, osotasunaren azaleraren herenera iristerik ez baldin badu, eta hau liburu-josturak eta antzeko elementuak kontutan hartu gabe ».

Liburuaren definizio fiskalari erantzuten dioten liburuak :

- Letretaz, zientzietaz edo arteaz ari diren lanak,
- Hiztegiak eta entziklopediak,
- Irakaskuntza liburuak,
- Literatura, zientzia edo artea gaitzat duten artikuluek gehien bat osatutako almanakak, edo oro har interes orokorreko edo hezkuntza elementuak nagusitzen direlarik,
- Irudi liburuak, testudunak edo gabekoak,
- Kultur gidak edo gida turistikoak,
- Repertorium juridikoak, bibliografikoak edo kulturalak,
- Arte erakusketa katalogoak, baldin eta ez badira obraren repertorium soilak, eta idatzitako testu aski bada, multzoari, obra intelektual izaera emateko gisan,
- Musika metodoak, piano edo kanturako obra baten partiturak edo liburuxkak, musika irakaskuntza edo solfeorako liburuxkak.

Liburuaren definizio fiskalari erantzuten ez dioten liburuak :

- Goian aipatuak ez diren almanakak,
- Urtekariak,
- Ostatu eta hotelak zerrendatzen dituzten gidak, hirietako gidak eta publizitate kutxua hartzen duten gisa bereko gidak,
- Katalogoak,
- Filatelia albumak eta katalogoak,
- Tren, itsasontzi eta tranbia ibilbideen adierazteko edo gisa bereko argitalpenak,
- Pintatzeko liburuak, ebakigarriak, alfabetoak,
- Haurrendako irudi albumak, ebakigarriak direnak kolekzio baten osatzeko helburuz,

- Répertoires qui ne comportent que de simples énumérations et les répertoires alphabétiques de personnalités,
- Brochures destinées à commenter le fonctionnement d'un appareil avec lequel elles sont livrées,
- Emboîtages destinées à la présentation des livres lorsqu'ils sont vendus séparément,
- Simples partitions qui diffusent le texte et la musique d'une chanson, cahiers de musique pour devoirs, et papiers musique.

- Izendatze soilek osatutako erreperitoriumak, jende ospetsuez osatu erreperitorium alfabetikoak,
- Tresna batekin doazen liburuxkak, non hauen helburua funtzionamenduaren azaltzea duten,
- Bereizirik saltzen diren liburuen aurkezpenarako balio duten kutxa modukoak,
- Kantu baten musika eta testuen berri ematen duten partitura soilak, etxeko lanendako musika kaierak, musika papera.

②. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque

- La conception d'outils de promotion :
 - Catalogue, PLV, affiche, marque page et autres supports.
- Les événements promotionnels pour la parution d'un ouvrage.
- Le regroupement d'éditeurs en vue d'assurer la promotion de leurs titres.

②. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu

- Promoziorako lan tresnen sorrera :
 - Katalogoa, PLV, afixa, orri markagailua, eta beste euskarri oro.
- Liburu baten argitaratzearen karietara apailatu promozio gertakariak.
- Beren tituluen promozioa bideratu nahi dituzten argitaratzaileen elkarraditzeak.

③. Soutien à la mise en place d'animations en langue basque

- Tout projet d'animation en relation avec les métiers du livre, de la lecture et/ou de l'écriture en langue basque destiné à un jeune public et se déroulant durant le temps scolaire, périscolaire ou extrascolaire.

③. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu

- Irakurketa, idazketa edota liburugintzari lotu ofizioen ezagutza, publiko gaztearengan bermatzeko xede duen antolatutako eskolaz barneko edo kanpoko jardueren karietarako animazio pedagogiko oro.

Article 5 : Modalités de financement

①. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque (à concurrence de 4 ouvrages par an et par porteur de projet)

• Edition jeunesse	Plafond des aides financières	
	Ouvrage unilingue	Ouvrage plurilingue
Roman, Album, Théâtre, Poésie	Jusqu'à 50% du coût Hors Taxes du projet, plafonné à 6.000 € d'aide	Jusqu'à 30% du coût Hors Taxes du projet, plafonné à 6.000 € d'aide

• Littérature adulte	Plafond des aides financières	
	Ouvrage unilingue	Ouvrage plurilingue
Roman, Théâtre, Poésie, Bande dessinée, Combiné CD+livre	Jusqu'à 50% du coût Hors Taxes du projet, plafonné à 4.000 € d'aide	Jusqu'à 30% du coût Hors Taxes du projet, plafonné à 4.000 € d'aide

5. artikulua : Diruztapen era

①. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu (urtean 4 libururentzat gehienik proiektu eramale bakoitzeko)

• Haur eta gazte argitalpena	Diru-laguntzen gehienezkoa	
	Liburu elebakarra	Liburu eleanitza
Eleberria, Albuma, Antzezlanak, Poesia,	Proiektuaren Zergaz Kanpoko kostuaren %50eraino, 6.000 € gehienez	Proiektuaren Zergaz Kanpoko kostuaren %30 eraino, 6.000 € gehienez

• Helduen literatura	Diru-laguntzen gehienezkoa	
	Liburu elebakarra	Liburu eleanitza
Eleberria, Antzezlanak, Poesia, Komikia, CD+liburu konbinatuak	Proiektuaren Zergaz Kanpoko kostuaren %50eraino, 4.000 € gehienez	Proiektuaren Zergaz Kanpoko kostuaren %30eraino, 4.000 € gehienez

• Livres pratiques et ouvrages de vulgarisation • Essais et livres techniques • Bande dessinée, Combiné CD+livre	Plafond des aides financières	
	Ouvrage unilingue	Ouvrage plurilingue
Arts, Patrimoine, Histoire, Littérature, Sciences sociales, Sciences techniques, Médecine, Gestion, Sciences de la terre, Guide, Cuisine	Jusqu'à 50% du coût Hors Taxes du projet, plafonné à 8.000 € d'aide	Jusqu'à 30% du coût Hors Taxes du projet, plafonné à 8.000 € d'aide

②. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque

- Les projets ou activités pourront être soutenus jusqu'à 60% des dépenses éligibles plafonnées à 5.000 €.

③. Soutien à la mise en place d'animations en langue basque

- Les projets ou activités soutenus devront faire l'objet d'un autofinancement minimum de 30%.

Le cumul des aides attribuées à un même opérateur dans le cadre du volet édition de l'Appel à projets action linguistique d'une même année ne pourra égaliser ou excéder **23.000 €** de subvention.

Article 6 : Procédure retenue

Les aides financières seront affectées via l'Appel à projets action linguistique co-organisé par l'Office Public de la Langue Basque et le Vice-Ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement Basque.

Les dossiers de candidature seront traités dans le respect des critères décrits à l'article 11.

Article 7 : Présentation des dossiers

Le dossier complet de candidature à l'Appel à projets, complété en 2 langues, devra parvenir en **format numérique** (pdf) à l'adresse mail suivante : **d.aire@mintzaira.fr**,

• Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak • Saiakerak/liburu teknikoak • Komikia, CD+liburu konbinatuak	Diru-laguntzen gehienezkoa	
	Liburu elebakarra	Liburu eleanitza
Arteak, Ondarea, Historia, Literatura, Zientzia Sozialak, Zientzia teknikoak, Medikuntza, Kudeaketa, Natur Zientziak, Gidak, Sukaldaritza	Proiektuaren Zergaz Kanpoko kostuaren %50eraino, 8.000 € gehienez	Proiektuaren Zergaz Kanpoko kostuaren %30eraino, 8.000 € gehienez

②. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu

- Egitasmoez diru-laguntza jasotzen ahalko dute, kontuan hartu daitezkeen xahutzeen %60a edo 5.000 € bitarte.

③. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu

- Egitasmoez diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienezko %30eko autofinantziazioa bete beharko dute.

Eragile bakarrak urte berean jaso dezakeen hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren argitalpena atalaren kariatarako diru-laguntza ezberdinen zenbatekoa, **23.000 €** baino guttiagokoa izan daiteke.

6. artikulua : Emateko prozedura

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanean erabakitako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira.

Hori horrela, aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, 11. artikuluan ezarritako irizpideak kontuan harturik.

7. artikulua : Eskabideen aurkezpena

Proiektu deialdiko eskabide txosten osatua, 2 hizkuntzetan beterik, **formatu digitalean** (pdf) honako helbide elektronikora helarazi beharko da: **d.aire@mintzaira.fr**,

et en **1 exemplaire papier** à l'adresse postale suivante :

**Office Public de la Langue Basque
Euskararen Erakunde Publikoa**

Volet Edition / Appel à projets action linguistique
Argitalpena atala / hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia
2, Allée des Platanes - Platanoen ibilbidea, 2
64100 Bayonne – Baiona

Eta **paperrez, ale bakarrean**, honako posta helbidera:

**Office Public de la Langue Basque
Euskararen Erakunde Publikoa**

Volet Edition / Appel à projets action linguistique
Argitalpena atala / hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia
2, Allée des Platanes - Platanoen ibilbidea, 2
64100 Bayonne – Baiona

Et ce, pour le **16 mai 2018** dernier délai (période de 3 semaines à compter de la publication).

Eta hau, berantenez **2018ko maiatzaren 16rako** (deialdiaren argitarapenetik 3 asteko epean).

Article 8 : Gestion des dossiers incomplets

Il sera délivré au porteur de projet par l'Office Public de la Langue Basque un certificat accusant réception du dossier complet ou un courrier lui précisant les pièces ou éléments manquants. A réception de ce courrier, l'opérateur aura 10 jours pour y répondre, faute de quoi sa candidature ne pourra être considérée éligible.

8. artikulua : Osatugabeko eskabideen kudeaketa

Eskatzaileak txostena osatua dela segurtatzen duen agiri bat eskuratuko du; hala ez bada, txostena osatua izateko eskas diren elementuak zehazten dituen gutun bat jasoko du Euskararen Erakunde Publikoarengandik. Gutun hori jaso eta, 10 eguneko epea utziko zaio eskatzaileari, EEPko eskaerari erantzuteko; baldintza hori errespetatzen ez bada, eskabidea ez da onartua izango.

Article 9 : Gestion de l'Appel à projets

L'organisation et la gestion de cet Appel à projets relèveront de la responsabilité de l'Office Public de la Langue Basque. De par le partenariat établi avec la Communauté Autonome d'Euskadi, ses représentants seront associés aux différentes étapes du dispositif : instruction technique des dossiers, phase décisionnelle et communication.

9. artikulua : Deialdiaren kudeaketa

Deialdiaren antolaketa eta kudeaketa, nagusiki, Euskararen Erakunde Publikoaren esku izango dira. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ordezkarien presentzia eta parte hartzea arlo guztietan bermatuko dira : egitasmoen balorazioa egiterakoan, erabakietan, lagundu egitasmoen zabalkundeetan ...

Article 10 : Procédures d'instruction et de décision

L'ensemble des dossiers attestés complets feront l'objet d'une instruction technique concertée associant les services de l'Office Public de la Langue Basque et ceux du Gouvernement Basque, sous la responsabilité de la Directrice de l'Office Public de la Langue Basque et de la Directrice de la Recherche Linguistique et de la Coordination.

10. artikulua : Balorazio batzordea

Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu teknikoek hautagaitzarako onartutako txosten guztiak elkarrekin aztertuko dituzte, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendariaren eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariaren ardurapean.

S'agissant des projets d'édition d'ouvrages présentés, en complément de l'instruction technique, l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia sera chargée d'émettre pour avis une appréciation de la qualité de la langue.

A l'issue, un projet de délibération argumenté sera présenté conjointement au Président de l'Office Public de la Langue Basque et au Vice-Ministre de la Politique Linguistique.

L'Assemblée générale de l'Office Public de la Langue Basque et le Vice-Ministère de la Politique Linguistique l'examineront, délibéreront et prendront position sur chacune des demandes exprimées.

Les décisions seront notifiées par le Président de l'Office Public de la Langue Basque et le Vice-Ministre de la Politique Linguistique.

Aurkeztutako argitaratze proiektuei dagokienez, eta zerbitzuek eramandako azterketa teknikoaren osagarri bezala, hizkuntzari buruzko iritzi kualitatiboa emanen du Euskaltzaindiak, abisu gisa.

Aztertu ondoren, erabaki proposamen argudiatu bat aurkeztua izango zaie Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakariari eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeari.

Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar nagusiak eta Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak proposamen hori aztertuko eta eztabaidatuko dute, eta eskaera bakoitzari buruzko erabaki bat hartuko.

Erabakiaren berri, Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakariak eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeak emango dute.

Article 11 : Critères d'affectation des aides

①. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque
<ul style="list-style-type: none">• Niveau de langue minimum requis pour la parution de l'ouvrage.• La rigueur de conduite de projet.• Le réalisme financier du projet.
②. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque
<ul style="list-style-type: none">• Le bien fondé de la démarche de l'éditeur par rapport à son projet éditorial.• Le caractère professionnel du projet.• La qualité des partenariats noués avec les différents acteurs de la chaîne du livre.• L'adéquation entre le contenu du projet et le plan de financement présenté.
③. Soutien à la mise en place d'animations en langue basque
<ul style="list-style-type: none">• La pertinence du projet au regard des objectifs recherchés.• L'originalité du projet et son aspect professionnel.• La qualité des partenariats noués.• L'adéquation entre le contenu du projet et le plan de financement présenté.

11. artikulua : Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak

①. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu
<ul style="list-style-type: none">• Liburua argitaratua izateko beharrezkoa den gutxienezko hizkuntza maila.• Proiektuaren bideratzeko zehaztasuna.• Proiektuaren errealismo ekonomikoa.
②. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu
<ul style="list-style-type: none">• Argitaratzailearen izapidea, bere argitalpen proiektuari begira.• Proiektuaren planta profesionala.• Liburuaren katea osatzen dute eragile ezberdinekin josi partaidetzen nolakotasuna.• Proiektuaren edukiaren eta aurkeztutako finantza planaren arteko egokitzapena.
③. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu
<ul style="list-style-type: none">• Proiektuaren egokitasuna bete nahi diren helburuekiko.• Proiektuaren bere gisakotasuna eta bere planta profesionala.• Josi partaidetzen nolakotasuna.• Proiektuaren edukiaren eta aurkeztutako finantza planaren arteko egokitzapena.

Article 12 : Règle relative au cumul avec d'autres aides

Les aides attribuées dans le cadre de cet Appel à projets ne sont pas cumulables avec d'autres aides accordées par le Gouvernement Basque sur des objectifs similaires.

Elles sont par contre cumulables avec d'autres aides publiques ou privées dans le respect du plan de financement initial (une aide publique ou privée non initialement prévue et mobilisée après la date de dépôt du dossier sera déduite au moment du versement du solde final, du montant de l'aide accordée dans le cadre du présent Appel à projets).

Article 13 : Communication de la décision

L'acte officiel des décisions d'affectation sera rendu public par le Président de l'Office Public de la Langue Basque pour le compte des deux organismes et diffusé aux intéressés.

D'autre part, des conventions précisant les modalités d'affectation des aides décidées pourront être signées avec les bénéficiaires.

Article 14 : Obligations des bénéficiaires

Les bénéficiaires des aides affectées dans le cadre de cet Appel à projets ont pour obligation d' :

- a).** Accepter l'aide affectée. L'aide sera considérée acceptée, si 15 jours après avoir reçu confirmation de cette aide, l'opérateur ne fait pas connaître son refus de la décision.
- b).** Utiliser l'aide dans le respect des objectifs pour lesquels celle-ci est accordée.

Article 15 : Modalités de versement

Les versements de l'aide auront lieu en deux temps :

- 50% de l'aide à l'acceptation par l'opérateur de la décision, et, le cas échéant, à la signature de la convention, et,
- le solde après présentation des pièces justificatives, conformément aux dispositions de l'article 16.

12. artikulua : Beste (diru-)laguntzekiko bateragarritasuna

Agindu honetako diru-laguntzak bateragarriak dira, beste edozein erakunde publiko zein pribatuk, helburu berberaz emandakoekin, baldin eta jatorrizko finantzaketa egitaraua errespetatzen bada (hastapenean, hots txostena aurkezterakoan, iragarria ez zen erakunde publiko zein pribatu batek banatu diru-laguntza, Proiektu Deialdi honen baitan aurkeztu finantzaketa planean iragarri saldo orokorretik kendua izanen da).

Aldiz, agindu honetako diru-laguntzak Eusko Jaurlaritzak helburu berberaz emandakoekin bateraezinak dira.

13. artikulua : Ebazpena

Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakariak sinatutako ebazpen ofiziala zabaldua izango zaie eskatzaileei, banan-banan, eta publikoki hedatua, bi erakundeen izenean.

Bestalde, horretaz gain, zenbait onuradunekin hitzarmena izenpetu ahal izango dute, Proiektu Deialdi honen bidez jasotako laguntzaren zehaztasunak jasoz.

14. artikulua : Onuradunaren betebeharrak

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek ondoko hauek bete behar dituzte :

- a).** Esleitutako diru-laguntza onartzea. Ildo horretan, onuradunek diru-laguntza egokitu zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote onartu egin dutela ulertuko da.
- b).** Diru-laguntza agindutako helburu zehatzetarako erabiltzea.

15. artikulua : Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntzaren ordainketa bi unetan egingo da :

- Diru-laguntzaren %50a diru-laguntza eskatzaileak esleitutako laguntza onartu bezain laster edo, hala badagokio, hitzarmena izenpetutakoan, eta,
- Diru-laguntzaren saldoa justifikazioa egin ondoren, 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Le versement d'un acompte supplémentaire pourra être versé à l'opérateur qui en ferait la demande et qui serait en mesure de justifier de l'état d'avancement du projet.

Article 16 : Justificatifs à fournir

Dès la réalisation du projet ou des activités, l'opérateur devra présenter l'ensemble des pièces justificatives à l'Office Public de la Langue Basque, et ce **au plus tard pour le 28 février 2019** :

- Pour le domaine d'intervention ❶. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque :
 - Fiche FB complétée par ouvrage soutenu,
 - Justificatifs de dépenses.
- Pour les domaines d'intervention ❷. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque et ❸. Soutien à la mise en place d'animations pédagogiques en langue basque :
 - Bilan d'opération,
 - Bilan financier du projet,
 - Justificatifs de dépenses.

L'ensemble des pièces justificatives fera l'objet d'un examen par les services de l'Office Public de la Langue Basque au regard des critères suivants :

- Conformité et cohérence par rapport au projet et au budget initialement présentés,
- Prise en compte des éléments fixés à l'article 12.

Les documents à rédiger seront à produire en 2 langues.

La production des pièces complémentaires sera si nécessaire notifiée par l'Office Public de la Langue Basque à l'opérateur qui disposera de 15 jours pour les produire.

Le montant du solde versé sera fixé compte tenu des justificatifs produits au regard du budget initialement présenté.

Si, après examen des justificatifs produits, le montant de l'aide définitive s'avère être inférieur à l'(aux) acompte(s) versé(s), l'opérateur procédera au remboursement à l'Office Public de la Langue Basque, de tout ou partie d(u)es

Gainerateko aurrekari baten isurpena aurreikusi liteke, eragileak hala eskatzen balu eta proiektuaren aitzinamendu mailaz bermeak emanda.

16. artikulua : Diru-laguntza justifikatzea

Lagundutako proiektua edo jarduerak gauzatuak izango direlarik, eragileak nahitaezko froga-agiriak aurkeztu beharko dizkio Euskararen Erakunde Publikoari, **berantenik 2019ko otsailaren 28rako** :

- ❶. Euskarazko liburuaren argitaratzea izeneko sustapen-lerroari dagokionez :
 - FB fitxa osaturik, diruz lagundu liburu bakoitzarentzat,
 - Xahutze egiaztagiriak.
- ❷. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu, eta ❸. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu sustapen-lerroei dagokienez :
 - Jarduera bilduma,
 - Proiektuaren finantza bilduma,
 - Xahutze egiaztagiriak.

Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuek egiaztagiri guztiak aztertuko dituzte ondoko irizpideen arabera :

- Aurkeztutako proiektuaren eta honen aurrekontuaren begirako egokitasuna eta koherentzia,
- 12. artikuluan zehaztutako irizpideen kontutan hartzea.

Idaztekoak izanen diren dokumentuak, 2 hizkuntzatan ekoiztu beharko dira.

Halabeharrean, agiri osagarrien aurkeztea Euskararen Erakunde Publikoak eragileari gutunez eskatuko dio, 15 eguneko epea horretarako utziz.

Diru-laguntzaren saldoaren isurpena aurkeztutako egiaztagiriaren arabera finkatua izanen da, oinarritzko aurrekontuarekin parekatuta.

Aurkeztutako egiaztagiriak aztertuta, behin-betiko diru-laguntza, aurretik eskuratu isurpena(k) baino ttipiagoa baldin bada, edota, dena delako arrazoiengatik eskuratu diru-laguntza osorik edo partez itzuli behar izanez gero,

versement(s) antérieur(s), et ce dans un délai d'un mois maximum après réception du document adressé par l'Office Public de la Langue Basque.

Article 17 : Communication de l'aide apportée

Les opérateurs bénéficiaires d'une aide devront faire mention du soutien de l'Office Public de la Langue Basque et du Vice-Ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement Basque concernant les projets et activités aidés. Les modalités seront précisées par l'Office Public de la Langue Basque.

Article 18 : Obligations légales

Dans le domaine ❶. Soutien à l'édition en langue basque, et en tant qu'éditeur, l'opérateur est tenu d'inscrire son projet dans le cadre légal relatif à l'édition :

- Loi n° 81-766 du 10 août 1981 relative au prix unique du livre.
- Article 1 de l'arrêté du 12 janvier 1995 fixant les mentions obligatoires devant figurer sur les documents imprimés, graphiques et photographiques soumis au dépôt légal :
 - nom et adresse de l'éditeur,
 - nom et adresse de l'imprimeur,
 - date d'achèvement du tirage,
 - numéro ISBN,
 - prix en euros,
 - date du dépôt légal.

Article 19 : Non-respect des obligations

1. Seront considérés comme manquement aux clauses établies les cas suivants :
 - a) L'utilisation totale ou partielle de l'aide allouée pour l'organisation d'activités autres que celles ayant fait l'objet de l'affectation.
 - b) Dans le cas d'une mise en œuvre partielle du projet, le non-remboursement de la subvention accordée dans le délai imparti.
 - c) De manière générale, le non-respect d'une disposition décrite dans le présent document.
2. Tout cas de manquement tel que décrit ci-dessus entraînera le remboursement de l'aide versée auprès de l'Office Public de la Langue Basque.

eragileak diru-kopurua Euskararen Erakunde Publikoari itzuliko dio, honek bidalitako likidazio-ebazpena eskuratu eta hilabeteko epean.

17. artikulua : Emandako babesaren aipamena

Diru-laguntza jasotzen duten eragileek, Euskaren Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako babesa adierazi beharko dute diruz lagunduriko proiektu edo jardueraren ondorioz egindako iragarki guztietan. Betebeharrak, Euskararen Erakunde Publikoak zehaztuko ditu.

18. artikulua : Legezko betebeharrak

Euskarazko liburuaren argitaratzea sustapen-lerroaren kasuan (❶), eragileak, argitaratzailea den neurrian, bere proiektua liburugintzaren koadro legalaren errespetuan eraman behar du :

- 1981eko agorrilaren 10eko Legea, 81-766 zk., liburuaren prezio bakarrari buruzkoa,
- 1995eko urtarrilaren 12ko aginduko 1. Artikulua, lege gordailuaren errespetuan, behartu argazki, dokumentu grafiko eta inprimaki orotan derrigorrez agertarazi beharreko aipamenak finkatzen dituenak :
 - argitaratzailearen izena eta helbidea,
 - inprimatzailearen izena eta helbidea,
 - tirada bukatu den eguna,
 - ISBN zenbakia,
 - salneurria eurotan,
 - lege gordailuaren data.

19. artikulua: Ez betetzeak

1. Arauak bete gabetzat joko dira honako kasu hauetan :
 - a) Jasotako diru-laguntza osoa zati bat agindu honetan zehaztutakoez beste jardueretarako erabiltzea.
 - b) Proiektua edo jarduerak ez badira osoki gauzatzen, zehaztutako diru-kopurua ez itzultzea, horretarako emandako epean.
 - c) Beste xedapen batean, orokorrean, nahitaezkotzat jotzen diren gainerako egitekoak ez betetzea.
2. Artikulu honetako aurreko idatzi-zatian aipatutako ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako dirua eta horren legezko interesak itzuli beharko zaizkio EEPri.

Dispositions finales

Première disposition :

Toute réclamation relative au présent règlement peut être transmise auprès du Président de l'Office Public de la Langue Basque, à partir du jour suivant sa publication et dans un délai d'un mois.

Seconde disposition :

Le présent règlement entre en vigueur à sa publication.




Azken xedapenak

Lehen xedapena:

Agindu honen aurka interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakariari hilabeteko epean, kaleratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarren xedapena:

Agindu honek kaleratu eta hurrengo egunetik hasita izango du eragina.




Règlement 2018 « volet Edition »
adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2018



3 domaines d'intervention :

1. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque.
2. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque.
3. Soutien à la mise en place d'animations pédagogiques en langue basque.



2018ko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartu
« Argitalpena atala » 2018ko araudia



3 sustapen-lerro :

1. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu.
2. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu.
3. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu.